

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

HELBURUAK:

- Natura 2000 Sarea ezagutu, osatzen duten guneen ezaugarri batzuk deskribatuz eta baloratuz, beren kontserbazioa justifikatzeko argudioak eskuratzeko.
- Natur gune babestuei buruzko informazioa bilatu, aukeratu eta organizatu.

BALIABIDEAK:

- Internet.

LANTZEN DIREN KOMPETENTZIAK:


- Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako kompetentzia.
- Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
- Giza eta arte-kulturarako kompetentzia.

Natura
2000
sarea



ARIKETA

Iturria: CEIDA: Ingurugiro Hezkuntzako Materialak; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza; BIOANIZTASUNA (162-163 orrialdeak).1996. urtea
 Web: http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/r49-6172/eu/contenidos/libro/ud_biodiversidad2/eu_pub/indice.html



Euskadik gaur duen paisaiak antz gutxi du duela berrogeita hamar urte zuenarekin, eta askoz gutxiago bertako lehen biztanleek aurkitu zutenarekin. Denbora aurrera joan ahala, espazio gehiago okupatu dugu eta intentsitate handiagoz aprobetxatu ditugu gure natur baliabideak. Leku batzuek kontserbazio egoera hobean iraun dute eta leku horietan biltzen da aniztasun biologiko gehiena. Biodibertsitate kondar hauen desagertzea eragozteko modu bat, horiei kalterik egin diezaieketen giza jardueretatik babestea da.

Saiatu zaitetz ondorengo web* (azpian) laguntzarekin ondoren eskatzen zaizun informazioak biltzen:

- Zer da Natura 2000 Sarea? Zein gune motek osatzen dute?
- Zer dira Batasunaren Garrantzizko Lekuak?
- Zein prozedura jarraitu da gune bat Natura 2000 Sarean sartzeko? Zein erakundek dauka gune horien zaintzaren ardura?
- Kokatu Euskal Autonomia Erkidegoko mapa batean Natura 2000 Sarean dauden guneak. Zein lurralde historikotan daude gehien?

Horietakoren bat ezagutzen duzu?

- Uste duzu naturgune babestuek txikiak direla eta isolatuak daudela?
- Zer dira Kontserbazio Bereziko Eremuak?
- Hiru edo lau ikasleko taldeak egin eta talde bakoitzak aztertu gune horietako bat. Bildutako informazioa (kokapena, azalera, babes-maila desberdineko lur-sailak, gunearen balioak, arazoak, babesteko neurriak, argazkiak, testigantzak...) prestatu ikaskideei komunikatzeko.

Zergatik ez duzue egiten ikastetxetik egun osoko irteera bat horietako gune batera!